

# Landa-garapen politika eta ingurumenarekiko harremana Euskal Autonomia Erkidegoan (1992-2008)

Iker Etxano Gandariasbeitia

**Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea**

Landa-garapeneko politikek, eremu horietako ohiko jardueren sustapena eta berregituratze sozioekonomikoa bultzatzeaz gain, lurralde-antolaketa zein ingurumen-esparru gero eta garrantzitsuagoak barneratu dituzte beren proposamenetan. Artikulu honek horixe aztertzen du, zein izan den landa-garapen politikaren *ingurumentze* prozesua Euskal Autonomia Erkidegoan, alegia. Basogintza eta nekazaritza-ingurumen neurriez gain, prozesu honetan arreta berezia merezi du Natura Eremu Babestuen politikak, zeina neurri handian landa-garapenekoarekin uztartu egiten den funtzionalki zein kronologikoki.

**GAKO-HITZAK:** Landa-garapen politika · Ingurumena · Natura Eremu Babestuak · Euskal Autonomia Erkidegoa.

Rural development policies, apart from revitalizing traditional activities and promoting socioeconomic restructuring within rural areas, have included a vision increasingly relying on land planning and environmental issues. The article analyzes just this, i.e. the environmentalization process that the rural development policy has undergone in the Basque Country. Apart from forestry and agri-environmental measures, in this process must be paid attention on Natural Protected Areas policy, which to a certain extent merges with rural policy in terms of function and time horizon.

**KEY WORDS:** Rural development policy · Environment · Natural Protected Areas · Basque Country.

*Jasotze-data:* 2009-05-15. *Onartze-data:* 2009-05-30.

## 1. Sarrera<sup>1</sup>

Landa-garapen politikak landa-eremuetan gertatzen ari zen etengabeko gain-behera ekonomiko zein demografikoari aurre egiteko izan ziren sortuak. Laurogeiko hamarkadaren amaieran Europako Batzordeak *Landa-inguruko etorkizuna* (1988)<sup>2</sup> dokumentua argitaratu zuen, zeinak egiaztatu zuen nekazaritzaren protagonismo eskasa landa-inguruetako lehen errenta-iturri gisa. Harrezkero, abian jarritako politikek landa-eremuetako arazoak ikuspuntu integratutik jorratzeko saiakera burutu dute; alde batera utzi da ikuspegi sektorial hutsa, zeinaren arabera produktibismoa gailentzen zen, eta ordea, giza, lurralde- eta ingurumen-osagaiek pisu espezifiko nabarmena jaso dute. Horrela, agerikoa da landa-eremuek elikagaien produktiotik harago doazen berezko balioak dituztela, baina arestian arreta berezirik merezi ez zutenak. Hortaz, jokaleku berria zabaldu zaigu laurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera, zenbaitek *post-produktibismo* garaia izendatu dutena, eta zeinaren arabera «landatarra» den oro egoera berrietara egokitu behar den (Rubio, 1999).

Europar Batasunean (EB) landa-garapeneko politika Nekazaritza Politika Bate-ratuaren (NPB) estalpean eraikiz joan da. Nahiz eta laurogetia hamarreko hamarkadaren hasieran landa-garapen politika, «neurri osagarrien» bitartez, prezio- eta merkatu-politikaren gehigarri soil gisa agertzen zen, denbora aurrera joan ahala NP Bren 2. zutabe bilakatu egin da, bere aurrekontuaren diru-hornidura nabarmenki hazi delarik prozesu hau gauzatuz joan den heinean (Lowe *et al.*, 2002). Halere, oraindik gaur egun NP Bren helburu historikoak (merkatuen hornidura eta nekazaritza-prezioen bermatzea) xurgatzen du aurrekontuaren gehiengoa.

Laurogeiko hamarkan nekazaritza-tik eratorritako lehen ingurumen-desorekak ezagutarazi ziren arte, nekazaritza-politikek ez zuten nekazaritzaren eta ingurumenaren arteko harremana aintzat hartu. Harrezkero, NP Bk ingurumenarekiko bere posizioa birmoldatu egin du. Izan ere, nekazaritza-jarduera jakinek sor zezaketen eragin kaltegarria gutxiagotzera zuzendutako neurriak abian jarri dira erreforma ezberdinen bitartez (ikus Izcara, 2001). NP Bren azken erreformak (2005) ere zentzu horretan egin du bidea. Diru-laguntzen «disoziazioa» indarrean sartu da (diru-laguntzak produktiotik bereiziz), inguruarekiko adeitasunezkoa eta trinkoa ez den nekazaritza baten aldeko keinua dena. Horrez gain, diru-laguntzak irizpide ez-produktiboek baldintzatuta daude, hala nola ingurumen-baldintzek, elikadurakalitateak eta animalia-osasungarritasunak. Duela gutxi burututako NP Bren berrikusketak (2008) ere ildo beretik jarraitzen du (EB, 2008).

Euskal Autonomia Erkidegoaren (EAE) kasuan, alabaina, landa-garapen politikek ez dute ingurumen-ardurarik agerrarazten laurogeita hamarreko hamarkada arte. Horren gauzatzea landa-garapeneko lehen plan estrategikoa argitaratzearekin batera gertatu zen 1992an. Izan ere, ingurumen-ikuspegiaren agerraldia

---

1. Testu hau beste lan baten birmoldaketa eta eguneratzearen emaitza da, hain zuzen ere, «Medioambientalización de la política de Desarrollo Rural: el caso de la Comunidad Autónoma Vasca (CAV)» komunikazioarena (*V Nekazaritza-ekonomia Kongresua*. Konpostelako Santiago, 2004ko iraila). Halaber, Eduardo Malagon eskertu nahi du egileak eskainitako laguntzagatik, nahiz eta iritzien zein gerta litezkeen akatsen erantzukizun osoa egilearena soilik den.

2. «El futuro del mundo rural» (1988). COM(88) 501 azkena. Batzordearen Komunikazioa Europako Parlamentuari eta Kontseiluari. Brusela.

landa-eremuan landa-garapeneko plan esplizituak zirenekin batera gertatu zen, eta ez aurretik aplikatutako nekazaritza-politika sektorial soili lotuta.

Horrela, artikulu honek landa-garapen politikak EAEn jarraitu duen eboluzioa aztertzen du, bereziki beronek ingurumenarekiko izan duen harremana hausnartuz eta ezarritako planak erreferentziazat hartuz. Ikuspegi historiko hertsuari jarraituz, hausnarketa laurogeita hamarreko hamarkadan adostutako planekin hasiko da; hamarkada berean abian jarritako Natura Ereku Babestuen (NEB) politikari ere arreta berezia eskainiko zaio; izan ere, jorratutako ikuspegitik baterako helburuak dituzte politika horrek eta landa-garapenak. Ostean, Landa Garapen Iraunkorreko Plana (2000-2006) aztertuko da bere ingurumen-neurrien pisua gailenduz. Jarraian, eta zentzu berean, gaur egun indarrean dagoen Landa Garapenerako Programak (2007-2013) duen planteamenduaren hausnarketa egingo da. Azkenik, jorratuta-koaren inguruko azken gogoetek itxi egingo dute artikulua.

## **2. Laurogeita hamarreko hamarkada: EAEko landa-garapen politikaren ezarpena eta finkatzea**

Laurogeiko hamarkadan arloko politikako esfortzu gehienak EAEn nekazaritza-azpiegiturak hobetzera eta modernizatzerazuzendu ziren. Laurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran, ordea, landa-inguruko plan estrategikoen martxan jartzeak nekazaritza-ikuspegi sektoriala baztertzea ekarri zuen. Horrela, *Euskal Landa Eremuko Plan Estrategikoak (1992-1996)* (ELPE) zabaldu zuen bidea eta atzetik etorri diren beste planek lehenak ezarritako lerroa kontsolidatu dute. Are gehiago, bai *Euskal Landa Ingurunearen Garapenerako Jarduera Planak (1997-2000)* (ELGJP), bai *Landa Garapen Iraunkorreko Planak (2000-2006)* (LGIP) zein *Landa Garapenerako Programak (2007-2013)* (LGP) ere instrumentu zein finantziazio-ahalmen handiagoa izan dute beren eskura. Horrexek, alde batetik, landa-eremu jakinek jasandako narriadura sozioekonomikoaren galgatzea erraztu du, eta bestetik, ingurumenaren eta natura-baliabideen babesari arreta berezia jartzea baimendu du.

Aitzitik, aipatutako plan estrategikoak ez dira izan EAEn erabilitako erreminta bakarrak landa-politika gauzatzeko. Alde batetik, Programa Operatiboen testuinguruan Programazio Dokumentu Bakarrak (PDB) aplikatu egin dira antzina Helburu 5b ziren landa-eremuetan. Dokumentuok europar finantziazio-denboraldi ezberdinetan aplikatu izan dira eta beraien finantziazioak egitura-funtsak (EGEF, FSE, FEOGA-O)<sup>3</sup> izan zituen iturburu. Bestalde, Europatik LEADER erkidego-ekimena ere izan da bultzatua jarduera gaineratiko gisa. Ekimen horrek ikuspegi lokala eta berrikuntza barneratzen dituen garapen-prozesuan jarri du arreta, «oinarririk gora» (*bottom-up*) doan ikuspuntua jorratzearekin batera.

Valderejoko Parke Naturalaren izendapena 1992an PDBen (1991-1993) jarduera-esparruan koka genezake. Programa hori soilik Arabako Mendialdea eta Arabako Ibarrek deritzen eskualdeetan garatu zen, baina halere aurrerapauso esanguratsua lortu zuen orduan hasiberria zen natura-kontserbazioaren politikaren

---

3. Eskualdeak Garatzeko Europako Funtsa (EGEF); Europako Gizarte Funtsa (FSE); Nekazaritzaren Orientabide eta Bermerako Europako Funtsa – Orientazioa (FEOGA-O).

esparruan. Ondorengo PDBa (1994-1999) azalera nabarmen handiago baten gain garatu zen (EAEko lurraldearen % 37an) eta 40.000 biztanleren gain eragin zuzena izan zuen. Jarduera-ardatz nagusiak, berriz, ondorengoak izan zituen: landa-inguruko habitata hobetzeko azpiegituren sustapena, jarduera ekonomikoen dibertsifikazioa eta giza baliabideen prestakuntza lanpostuak sortzeko helburuarekin. Ingurumen eta baliabide naturalen inguruko jarduera-lerroa berorien babesa sustatzera eta bioaniztasunaren kontserbaziora zuzendua izan zen, batik bat, eremu babestuen sorreraren bitartez.

## **2.1. Euskal Landa Eremuko Plan Estrategikoa (1992-1996): lehen pausoak**

ELPEren onarpenak ordu arte EAEko landa-eremuetan aplikatutako politiken kontzepzioan aldaketa sakona eragin zuen. Esan bezala, plana martxan jar-tzeak ordu arte indarrean zeuden nekazaritza-politika sektorialak harrezkero aplikatu diren landa-garapen politiketatik mugarritu zituen. Haren diskurtsoa, alde batetik, nekazaritzako elikagai-sektorearen lehiakortasuna mantentzean, eta bestetik, landa-inguruaren gaineko ikuspegi integratua ezartzean oinarritu zen. Aitzitik, bi termino horien bateragarritasun(-ez)aren gaineko eztabaidak kolokan jar dezake nolabait planaren planteamendua (ikus Sumpsi, 1994). Dagokigun kasuan, nekazaritza-sektorea sendotzearen aldarrikapena ezinbestekotzat jo da landa-eremuetako garapenaren sustapenerako. Edonola ere, bi arauok (nekazaritza-lehiakortasuna, ikuspegi integratua) landa-garapenaren esparruan «lurralde-horizontal» kutsua duten politikak aplikatzeko trantsizioan emandako pausoen adierazle dira, «sektorial-bertikal» izaera hutsa dutenak ordezkatuak direlarik.

Nahiz eta plan honek aurrerapasuso kualitatibo garrantzitsua ekarri, ondo definitutako programa konkretuen gabezia nabarmena izan zuen. Norabidea ezartzean duen erretorika badauka baina neurri zehatzen falta ere bai. Horrekin batera jarduera-lerro bakoitzari dagokion aurrekontu eta finantziatio-planaren hutsunea ere igarri egiten da. Hori gabezia esanguratsua da; izan ere, planak dirauen denboraldi guztian zehar fondoak esleitzea helburu duen finantziatio-plan batek eraginkortasun handiagoa emango lioke bere aplikazioari.

ELPEk izan zuen eragin positiboenetarikoa, ordea, hiru jarduera-esparru nagusiren ezarpena izan zen: nekazaritzako elikagai-sektorearena, landa-garapenarena eta natura-inguruarena, alegia. Orobat, ondorengo plan estrategikoa ere hiru hanka horien oinarripean izan ziren eratuak. Lehenengoaren arabera, nekazaritzak landa-eremuetan izan duen pisu espezifiko indarrean mantendu nahi da. Horretarako, haren jarduerak ekoizpen-egituren hobekuntzan eta nekazaritza-sektoreko produktuen merkaturatzean kontzentratuko dira. Era horretan, nekazaritzako elikagai-sektoreak, oro har, landa-eremuetako garapenean dinamizatzailer papera betetzen jarraitzea bilatzen da. Landa-garapen esparrua, berriz, izaera horizontalerantzako pausoak adierazten dituzten artezbidetuen muiatz jabetzen da, besteak beste, ekonomia-dibertsifikazioa, zerbitzu eta azpiegiturak, hezkuntza eta ondare kulturala. Hala ere, esparru honetan aurreikusitako jarduera-ardatzak ahul samarrak dira neurri eraginkor eta errealak bilakatzekotan, ikuspegi integratuaren mesedetan aldaketa bultzatzen ez dutenak.

Bestetik, natura-inguruaren esparruak egungo landa-eremuei egozten zaizkien ingurumen- eta lurralde-ikuspegiak biltzen ditu. Botere publikoak bere gain hartu du ingurumena zaintzeko betebeharra oraingo eta etorkizuneko belaunaldien ondarea dela ulertzen duen heinean. Era berean, ingurumenarekiko babesleak diren nekazaritza- eta baso-jarduerak mantentzearen alde agertuko da. Halako xedearen hezurramitzea baso-politikaren zein NEBen politikaren garapenean oinarritzen da, zeinak esparru honetako ardatz nagusiak diren. Horrez gain, beste jarduerak ere abian jarri ziren: ehiza eta arrantzarako araudia, flora eta faunaren babeserako araudia eta naturaren kontserbaziorako hezkuntza-programa. Hala ere, planak ez du aurreikusten nekazaritza-jarduera jakinek sor ditzaketen eragin negatiboen leuntzea ekarriko luketen neurrien aplikazioa. Alegia, alde batera uzten dituela *nekazaritza-ingurumen neurriak*<sup>4</sup>, europar testuinguruan garai hartan aplikatzen hasiak zirenak hain zuzen ere.

ELPEren testuinguruan Baso Plana (1994-2030) jarriko da abian baso-politikaren gidaritza-lerroak ezartzeko asmoarekin. Basoei egozten zaizkien ingurumen-onurak, funtzio ekonomiko zein sozialarekin uztartzeko helburua du planak. Bestalde, baita NEBen politikak ere garapen garrantzitsua ezagutu zuen garai horretan. Politika horren azpian dagoen filosofia naturaren ikuspegi ekonomikoarena dugu. Hots, inguru naturalaren babesa NEBetako toki-biztanleriaren garapen sozioekonomikoarekin bateragarria ulertzen duena, adibidez, naturaren potentzialtasuna turistikoetan oinarrituz. Horrela, ELPEren jatorrizko ideia dugu babestu beharreko ondarea giza jarduerak eraldatutako landa-paisaia dela, aintzat hartuz «bharrezkoa dela babesa eta garapena bi kontzeptu antagoniko ez direla egiaztatzea» (EJ, 1992: 84)<sup>5</sup>. Horretarako nekazaritza eta basogintza aritzen direnei finantza-pizgarriak ematekotan agertzen da ELPE, alde batetik ingurunearen zaintzarekin bateragarriak diren ekoizpen-jarduerak gauza ditzaten, eta, bestetik, NEBetan ezarritako erabilera-murriztapenetatik eratorritako diru-galerak konpentsa daitezten. Halaber, eremu babestuen ondoko inguruetako garapena piztearren ELPEk zerbitzu-sektorearen sustapena proposatzen du, baita ingurunea mantentzeko diru-laguntza espezifikoak ere, kalitate-*labelen* sorrera, etab.

## 2.2. 16/1994 Naturaren Kontserbazio Legea

NEB mota ezberdinen artetik, EAEn Parke Naturala figura nagusizat adostu da, erabat egokia dela uste baita planteatu diren helburuak betetzeko asmoz. ELPE indarrean sartu orduko izendatutako parkeak Urkiolakoa (275/1989 Dekretua) eta aipatutako Valderejokoa (4/1992 Dekretua) ziren soilik; Urdaibai salbu, zeina 1984an UNESCOk Biosfera Erreserba izendatu zuen eta 1989tik lege espezifiko propioa duen (5/1989 Legea). Aitzitik, Naturaren Kontserbazio Legearen (16/1994 Legea) aldarrikapenak, ELPEk proposatutakoa, Parke Naturalen izendapen-prozesua bizkortu zuen. Lege hau izan da azken hamabost urteotan EAEn garatu den NEBen politikaren funtsezko oinarria.

Bere lehen helburua ahanzteke, hots, baliabide naturalen eta, oro har, naturaren kontserbazioa, 16/1994 Legea «arlo ezberdinetako politikek osatu eta antolatutako»

---

4. «Medidas agroambientales».

5. «Es preciso demostrar que conservación y desarrollo no son conceptos antagónicos» (EJ, 1992: 84).

garapen sozioekonomikoaren alde agertzen da. Horretarako, hiru mailatako NEBak ezarriko ditu: Aparteko Zuhaitza, Biotopo Babestua eta Parke Naturala. Azken hau NEBrik adierazgarriena dugu, lurralde-hedadura handiena duelako, balio handiko paisaia eta ondare ekologikoa barneratzen baititu eta, horrez gain, «gizakiaren ustiaketa eta presentziak asko aldatu ez dituen tokiak» direlako (14 art.). Garcíak (2007) era egokian adierazi bezala, Parke Naturalek kontserbazio, erabilera publiko eta garapen sozioekonomikoko helburuei erantzuten diete, eta hori araudiaren planteamenduarekin bat dator. Zentzu horretan, legearen ikuspegia naturaren zaintzaren inguruko kontzepzio klasikotik urrundu egiten da, zeinaren arabera NEBak «naturaren santutegi» gisa mantendu beharko liratekeen. Ostera, denboran zehar eremu babestu bilakatzeko gai diren lurraldeetan garatutako giza jarduerak integratzen dituen ikuspegia bereganatzen du. Honexek planteamendu zuzena ematen du EAerako, non lurraldeak giza zein jarduera-presio handia duen (egun EAE osoan ez dago «erabili gabeko» lurralde puskarik).

### 1. taula. ELPEn (1992-1996) aurreikusitako Parke Naturalen izendapen-egutegia.

Aurreikusitako urtea	Izendapen-urtea	Izena	Azalera (Ha)		Lurralde Historikoa
			Aurreikusita	Izendatua	
1992	1994	Gorbeia	25.000	20.016	Araba-Bizkaia
1993	1994	Aralar	13.670	10.956	Gipuzkoa
1993	1998	Pagoeta	12.700	2.910	Gipuzkoa
1994	1995	Aiako Harria	7.970	6.913	Gipuzkoa
1994	2006	Aitzkorri-Aratz	17.090	19.400 <sup>1</sup>	Gipuzkoa-Araba
1995	1998	Izki	14.500	9.143	Araba
1996	--	Entzia	6.400	--	Araba
			97.330	69.338	

Iturria: EJ (1992: 82) eta Garayo (1999: 152) lanetan oinarriturik.

(1) Parke Naturalaren 15.919 ha-ei Babes-eremu Inguruko 3.481 ha-ak gehitu behar zaizkie.

Halaber, Parke Naturalak oinarritzko atalak izango dira 16/1994 Legeak erregulatzen duen EAeko NEBen Sarearen egituraketan<sup>6</sup>. Hala ere, Sarearen eratzeak bide zail samarra jorratu du denboran zehar, atzerapen esanguratsuekin aurreikusitako izendapenekiko, baita hasiera batean uste zena baino izendatutako hedadura nabarmen murriztazoarekin: % 70 inguru (1. taula). ELPE indarrean egon bitartean aurreikusitako zazpi parkeetatik soilik hiru izan ziren izendatuak (Gorbeia, Aralar eta Aiako Harria), beste bat (Entzia) oraindik gaur egun Parke Natural izendatzeke dago.

Deigarria da oso hasiera batean aurreikusitako parkeen azaleraren eta azkenean izendatutakoaren artean dagoen diferentzia nabarmena. Badirudi Administrazioak asmo handiko iragarpenak egin zituela NEB bilaka zitezkeen lurraldeen gaineko errealitatearekiko. Natura-guneetako toki-biztanleriaren papera, izan ere, erabakigarria gertatzen da bai izendatze-prozesuan zehar bai natura-baliabideen babesean eta lurralde-kudeaketan. Gogoan izan behar da NEB jakinaren izendapenak jarduera eta erabileraren gaineko murriztapenak dakartzala, zeinak batik bat tokiko biztanleek pairatzen dituzten. Hortaz, biztanleok kaltetuak diren heinean, parkeen

6. 16/1994 Legearen (11.1 art.) arabera, EAeko NEBen Sarea Legeak berak ezarritako NEBen maila ezberdinek osatuko dute, alegia, Aparteko Zuhaitzek, Biotopo Babestuek eta Parke Naturalek. Hortaz, legearen arabera, Urdaibaiko Biosfera Erreserba ez dago Sarean barneratuta, baina *izatez* Sareko osagaitzat jo daiteke.

izendatze-prozesuek erresistentzia jaso dezakete. Toki-biztanleriaren papera izan da eremuon babesaren aldeko elementu nagusia; izan ere, lurralde-kudeatzaile gisa dihardu bertako populazioak. Era berean, talde hau izan beharko litzateke eremu jakina babestearen lehen onuraduna, legeak berak dioen moduan natura-baliabideen probetxua «natura-guneetako biztanleen onerako izan dadin».

### 2.3. Landa-garapena eta NEBak

Toki-biztanleriak gauzatzen dituen jarduerak NEBen araudiak murriztz ditzakeen kasuetarako konpentsazio ekonomikoak aurreikusten dira. Ordainketok murrizketei atxikitutako errentagarritasun-galeraren konpentsazioa dute helburu eta NEB jakinaren ezarpenari lotutako *kostu ez-zuzenak* kontsideratzen dira (Dixon eta Sherman, 1990). Izan ere, eremu babestuaren izendapenak sorturiko kontrako eraginak, neurri batean behintzat, konpentsatu egiten ditu. Horrez gain, *kostu zuzenak* erantsi beharko lirateke, hau da, izendapena dela-eta kudeaketatik eratorritako kostuak, besteak beste, antolamendu eta kudeaketa-planen sorrera eta garapena, administrazio-kostuak, azpiegituren sorrera eta egokitzea, mantentze-kostuak, langileen kontratazioa, etabar. Azkenik, ikuspegi erabat ekonomizistari jarraituz, eremu jakin bat izendapenerako hautatua denean eratorritako *aukera-kostua* kontuan hartu beharko litzateke. Izan ere, hautatutako eremuan beste helburu batzuk bilatzen dituzten jarduerak gauza zitezkeen eta horiei uko egiteak kostu jakina suposatzen du. Edonola ere, kostua, oro har, ezarri nahi diren neurriek eta NEBan gauzatzen diren jarduera motek baldintzatuko dute (Barreiro *et al.*, 2004).

Bestalde, NEBek zenbait *onura* ere hartzen dituzte beren gain. Antolamendu-eta kudeaketa-planek ezarritako murriztapenak direla-eta tokiko biztanleria baldintzatua gertatuko da, nahiz eta, oro har, nekazaritza- eta baso-jarduerak ez diren bereziki kaltetuak izaten, ingurumenean kalte nabarmena eragiten ez badute. Nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzatik erortzen diren merkataritza-mozkinez gain, ondorengo onura-multzoa bereiz daiteke:

- Ingurumen-onurak: naturaren kontserbazio-politika gauzatzearen arrazoi nagusiak. Ekosistemen babesa, bioaniztasunaren mantentzea edota CO<sub>2</sub>-aren xurgatzea dira onuron adibide esanguratsuenetariko batzuk.
- NEBek ez-kontsumo onurak deritzenak dauzkate, hau da, beren erabilera zuzenarekin harremanetan ez daudenak, besteak beste, estetikoak, kulturalak edo historikoak (Dixon eta Sherman, 1990). Zentzu honetan, «ez-erabilera balioa» ere aztertu izan da (Azqueta, 1996), zeinaren oinarritzko balioa «existentzia-balioa» den (Azqueta, 2002). Azken horrek emango du aditzera eremu jakineko ondarearen existentzia soilak etorkizunari begira balorazio positiboa merezi duela. Halere, ez-erabilera balioa eta existentzia-balioa ingurumen-onuratzat hartzen dira Ingurumen Ekonomiaren alorrean.
- NEBetako baliabideen mantentzeak denboran zehar onura-multzo jakina ekar lezake: bere etorkizuneko erabileratik eratorria (Dixon eta Sherman, 1990) edota «aukera-balioa» eratorritakoa (Azqueta, 1996, 2002), zeinaren arabera NEB hori etorkizunean erabili ahal izango den, jarduera produktibo ala ez-produktiboetara zuzenduta, eta ondorioz ongizate-iturri bilakatuko den.

- Lurralde-antolaketa-eremu ikuspuntutik, eremu babestuek lurzorua-erabilera-eremu banaketa orekatua lagunduko dute, zeinak lurralde-antolaketaren harmoni-koagoa erraztuko duen. Natura-guneen integrazio efektiboa lurralde-sisteman eskala zabal baten ikuspuntutik egin beharra dago, eta ez eskala murriztetik.
- Eremu babestu batek, orobat, hezkuntza eta ikerkuntzako helburuak ere betetzen ditu. Alde batetik, ingurumen-sentsibilizazioa sustatzeaz gain, eremuok ingurumen-praktika egokien adibide argia direlako, eta bestetik, ikerkuntzarako baldintza egokiak aurkezten dituztelako. EAEko ELGJPK (1997-2000) helburuok azpimarratzen ditu, baina halere, bigarren mailako-tzat hartuko ditu, aurrekontu-baliabideen arabera sustatuko dituela zehazten baitu (EJ, 1996: 186).
- Eta azkenik, ezin ahanzi NEBei eta beren inguru hurbilari lotutako zerbitzu-jarduerek eta lanpostuen sorrerak tokiko biztanleriarentzat ekar dezakeen onura sozioekonomiko potentziala. Horri lotuta, NEBek aisialdi-funtzioa ere betetzen dutela adierazi behar da. Zentzu horretan, natura-guneek ongizatez hornituko dituzte beren bisitariak, baina bestalde, bisitarien ekarpenek eragin sozioekonomiko positiboa izan dezakete inguru hurbilean zerbitzu-sektorearen bitartez batik bat.

Hau guztia dela eta, ahots gutxi dira NEBei lotutako onuren existentzia kolokan jartzen dutenak, eta adierazi bezala, zenbait onurak eragin positiboa izan dezakete landa-garapenean. Halere, abantailok desabantailekin alderatu beharko lirake. Alegia, NEB jakina izendatzeko egoeraren aurrean honexek dakartzen abantailak eta desabantailak identifikatu lehenik eta ostean hauek balioetsi beharko lirake. Hau partaidetza-oinarria duen ebaluazio-prozesu baten testuinguruan egin beharko litzateke, era horretan natura-gune horretan diharduten eta hura kudeatzen duten eragileen arteko interes kontrajarriak islatzeko aukera bizia legoke eta. Horrez gain, balorazio ekonomiko soiletik harago doazen ebaluazio-metodo integraziaileen aplikaziorantzako pausoak eman beharko lirake, esaterako, Irizpide Anitzeko Análisis<sup>7</sup> erabiliz. Metodo horrek NEBen inguruan azaltzen diren faktore anitzen (biologikoak, lurralde-faktoreak, sozioekonomikoak, etabar) ebaluazioa ahalbidetzen du era integratu batean eta tokiko biztanleriaren partaidetza bultzatuz.

#### **2.4. Euskal Landa Ingurunearen Garapenerako Jarduera Plana (1997-2000): ildo jarraitzailea**

Plan estrategiko honek ELPEk hartutako filosofia eta zabaldutako jarduera-esparruak mantenduko ditu. Nahiz eta jarraipen-lerro bera hartu, ELGJPK zenbait ekarpen egiten ditu, hala nola izaera horizontaleko programak (prestakuntzara zuzendutakoak, teknologia-aurrerakuntzakoak eta enpresa-programak), zeinak esparru estrategikoen gaineko jarduerak osatuko dituzten. Esparru estrategikoen alorrean, ordea, esparru jakin bakoitzerako neurriak aztertuko dira, zeinak planifikazioaren muina diren.

---

7. «Análisis Multi-criterio».



ELGJPren ekarpen nagusia, berriz, hiru esparru estrategikoen garapenaren inguruko *funtzio-aniztasunaren* kontzeptuari sostengua ematen dion marko teori-koa eratzea izan zen. Beste hitzetan, nekazaritzako elikagai-sektorearen esparruak landa-eremuetako funtzio ekonomikoari erantzuten dio. Hauxe izan da beren lehen funtzioa (funtzio aitortua dena) mendeetan zehar eta horren arabera landa-eremuak elikagaien produkziara zuzenduta daude. Bestetik, landa-garapen esparruak, funtzio sozialarekin bat egiten duena, «landa-habitataren hobekuntza» (EJ, 1996: 147)<sup>8</sup> izango du bere azken helburua. Horrela, landa-inguruaren berregituratze sozioekonomikora zuzenduko ditu bere ahaleginak, esaterako, zerbitzuen eta ekipamenduen horniketarekin. Eta azkenik, natura- eta lurralde-esparruak landa-eremuek betetzen duten ingurumen-funtzioari aurre egitea bilatuko du. Azken finean, funtzio-aniztasun kontzeptua fundamentu teoriko gisa hezurramitu egingo da landa-eremuen gainbehera ekonomiko eta demografiko hazkorra alderantzika-tzekotan. Dena den, nahiz eta funtzio-aniztasunak kontzeptu berria ematen duen, gaur egun landa-eremuei egotzitako funtzio horiek denbora luzez ezkutuan egon direla adierazi behar da (Atance eta Tió, 2000)

Finantza atalean, programa indarrean dagoen denboraldirako aurrekontu-artezebideak adierazten dira, zeina aurrerapausotzat har daitekeen ELPErekin alderatuz gero. Gainera, aintzat hartu behar da finantza-programak EAEko landa-eremuetan egingo diren jarduera guztiak bereganatzen dituela, baita Programa Operatiboan sartzen diren Helburu 5b eremuetakoak eta LEADER ekimenari dagozkionak ere (biak ELGJPren landa-garapen esparruan barne hartuta).

Landa-garapen eta ingurumenaren esparruek biltzen dute, hain zuzen ere, aurrekontuaren herena baino apur bat gehiago. Ordea, nekazaritzako elikagai-sektorearen esparruan barneratuta dagoen partida bakarra (nekazaritza-errentei laguntza eta merkatuen kontentzioa), FEOGA-Oren arabera, baliabideen % 28az jabetuko da. Azken esparru honi 1997-2000 denboraldiko aurrekontuaren % 58 dagokio (EJ, 1996: 225), hain zuzen ere. Begibistakoa da, hortaz, nekazaritza-sektoreak finantza-arloan behintzat pisu espezifikoa nabarmena mantentzen duela, nahiz eta programaren diskurtsoak lurralde- eta ingurumen-ikuspegiak barneratu dituen. Horrela, agerian geratzen da NPBren prezio- eta merkatu-politikak izan duen nagusitasuna Landa Garapen Politikaren aurrean (NPBren 2. zutabea).

#### *2.4.1. Natura- eta lurralde-esparrua*

Nahiz eta finantza-ikuspuntutik esparru honek garrantzi kuantitatibo mugatua duen, bere baitan aurreikusitako programak gauzatzea pauso garrantzitsua izango da ingurumen-aldagaia landa-garapeneko politiken testuinguruan finka dadin. Plan estrategikoei, oro har, eta ELGJPk bereziki, baserritarrak lurraldearen zein paisaiaren kudeaketan jokatzeko duen ezinbesteko papera azpimarratzen dute. Are gehiago, «natur ingurune gizatiartu» (EJ, 1996: 51)<sup>9</sup> baten aldeko apustua egiten du ELGJPk, non ingurumenarekiko errespetua duten nekazaritza-jarduerak garatzen diren baliabide naturalak zaintzeko bide gisa. Funtzio-aniztasunaren diskurtsoaren arabera, baserritarrek ingurumen-helburuak bete behar dituzte kalitatezkoak diren produktuak eskaintzeaz gain. Jarduera mantentzea ezinbestekoa

8. «La mejora del hábitat rural» (EJ, 1996: 147).

9. «Medio natural humanizado» (EJ, 1996: 51).

da, gainera, landa-eremu bizia izateko alderdi sozialetik. Halere, honexek talka egingo luke azken urteotan lehen sektoreak adierazi duen beherantzako joera orokortuarekin. Hori guztia dela eta, hain zuzen ere, nekazaritza-jardueraren egonkortzea eta sustapena lehen mailako helburutzat jo dute plan estrategikoez oro har. Ez dirudi, alabaina, helburua lortu denik lehen sektorearen ekarpena produkzio zein enplegu terminoetan behatuta, zeinak, oro har, beherako joera adierazi duen.

Bestalde, nekazaritza-jardueraren gainbeherarekin bat lugorriaren erabilera alternatibo bilakatu da basogintza azken hamarkadetan. Sektore horrek duen merkataritza-ikuspegiaz gain, ingurumen-efektu garrantzitsuak ditu bere kudeaketak, jakinda, gainera, EAEko azaleraren % 55 zuhaitzua dagoela<sup>10</sup>. Baso Planaren (1994-2030) artezbidetara jarraituz, ELGJPK neurri konkretuak plazaratzen ditu basogintzaren inguruan, besteak beste, baso-azpiegituren antolaketa, baso-sektoreko lurraldeplanen ezarpena edota baso-kudeaketaren ekozertifikazioa. Horiez gain, halere, europar testuinguruan martxan jarritako nekazaritza-lurren basotze-programak (EEko 2080/92 Araudiaren arabera) 1994an aplikatzen hasi ziren EAEn. Baso-berritze-laguntzak nekazaritza-lurzorua baso-erabilerara eraldatzeko helburuarekin izan ziren aplikatuak; horrela, ingurumen-helburuei heldu nahi zitzaizkien baina garapen sozioekonomikoa alde batera utzi gabe.

ELGJPK ingurumen-esparruan garatutako lerro nagusia, basogintzarekin batera, NEBen politika dugu. 1998an burututako Izkiko Parke Naturalaren (64/1998 Dekretua) eta Pagoetakoaren (254/1998 Dekretua) izendapenak, oro har 12.000 ha zituztelarik, mugari berri bat izan ziren zenbait urte lehenago hasitako izendapen-prozesuan (ikus 1. taula). Ostera, 2006 arte itxaron behar izan da beste bi parke naturalen izendapena gauzatzeko: Aitzkorri-Aratz (76/2006 Dekretua) eta Armañongoa (176/2006 Dekretua), orotara ia 23.000 ha babestu dituztelarik, gaur egun ezagutzen dugun Parke Naturalen sarea osatuz. Horrela, azken urteetan EAEn garatu den NEBen politikak ondorengo sarea edukitzea ekarri du: 9 Parke Natural, 5 Biotopo Babestu eta 25 Aparteko Zuhaitz. Orotara, babestutako azalera 76.695 ha dira<sup>11</sup>, EAEko lurraldearen % 10,6, alegia; Biosfera Erreserbaz gain, beste 22.000 ha inguru direnak.

Dena den, ondorengo urteetarako EAEko babestutako lurraldearen hazkunde nabarmena aurreikusten du kontserbazio-politikak. Aparteko Zuhaitzak izan ezik, 16/1994 Legepean ezarritako NEBen sarea bere osotasunean izango da integratua EAEko Natura 2000 Sarean. Izan ere, EB mailakoa den sare ekologiko honen ezarpena eta finkotzea dugu erronka nagusia ondorengo urteetarako naturaren kontserbazioaren alorrean. Natura 2000 Sareak Habitat eta Hegazti Zuzentarauetan (92/43/EEE eta 79/409/EEE, hurrenez urren) du bere oinarria. Orain arte EAEn 52 Erkidegoko Garrantzizko Leku (EGL) eta 6 Hegaztientzako Babes Berezikoko Eremu (HBBE) izendatu dira, orotara 147.000 ha inguru direlarik, alegia, EAEko lurral-

---

10. Iturria: Baso Inbentarioa 2005: <[http://www.nasdap.ejgv.euskadi.net/r50-15135/eu/contenidos/informacion/if\\_aprox\\_bosque/eu\\_dapa/adjuntos/Situacion\\_actual.pdf](http://www.nasdap.ejgv.euskadi.net/r50-15135/eu/contenidos/informacion/if_aprox_bosque/eu_dapa/adjuntos/Situacion_actual.pdf)>.

11. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolaketa Saila (2007): <[http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-4975/eu/contenidos/informacion/renp/eu\\_bio/enp.html](http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-4975/eu/contenidos/informacion/renp/eu_bio/enp.html)>.

dearen % 20 baino gehiago<sup>12</sup>. Natura-guneen hautaketa aipatu zuzentarauek adierazitako irizpide tekniko eta zientifikoaren arabera egin da soilik, inongo alderdi sozioekonomikorik kontuan hartu gabe. Hautaketaren azken fasean, estatu ki-deek EGLak Kontserbazio Bereziko Eredua (KBE) izendatzeko betebeharrak 6 urteko epean, behin Europako Batzordeak EGLa onetsi zuenetik. Horrela, bai KBEak zein HBBEak Natura 2000 Sarearen parte izatera pasatuko dira. Halaber, erronka hau gauzatzeko Ingurumen Esparruko Programak (2007-2010) 2010 urterako Eskualde Atlantiko Biogeografikoan barneratutako eremuen % 100 eta Eskualde Mediterraneoako eremuen % 30 KBE izendatzeko konpromisoa hartzen du bere gain.

### 3. XXI. mendearen hasiera: Landa Garapen Iraunkorren Planak

#### 3.1. LGIP (2000-2006): landa-garapenaren *ingurumentzerantz*

Plan honen ezarpenak etapa berria zabalduko du landa-eremuko plan estrategikoen garapenean. Dokumentuaren edukiak aurreko planek hartutako ingurumen-ikuspegiak indartu egiten du, bereziki nekazaritza-ingurumen neurrien barne hartzea dela eta. Hau jauzi kualitatibo garrantzitsua izango da, baina horrez gain aurrekontu-baliabide bolumen esanguratsua jasoko dute neurriok (finantza-dotazio totalaren % 6), ingurumen-izaera dutenen artean nagusia izanik.

Dokumentuak adierazi bezala, nekezaritza-ingurumen neurriek, paisaia, natura eta, oro har, ingurumenaren babesera zuzendutako neurriekin batera, «LGIP artikulatuko duen oinarria behar dute izan» (EJ, 2000: 48)<sup>13</sup>. Ingurumenari protagonismo esanguratsua egotzen zaio, «eskualdeen garapenerako oinarritzko elementua dela» eta «lehiakortasun-faktore» bilakatu dela esateraino (*ibid.*, 46)<sup>14</sup>. Halaber, planak helburu bikoitzari egingo dio aurre: alde batetik, populazioaren bizi-kalitatea hobetzea, eta horretarako egoera onean mantendutako ingurumena oinarritzkoa da; eta bestetik, epe luzean landa-inguruko jarduera produktiboak bermatu nahi dira. Helburuok EAEko Helburu 2 diren landa-eremuetan lortu nahi dira, lurraldearen % 55 eta populazioaren % 3,5en gain eragin zuzena izanez.

Aurreko planek ez bezala, honexek landa-garapen politika gauzatzeko eskura dauden neurri eta finantziario guztiak aintzat hartzen ditu. Izan ere, 2000-2006 finantziario-denboraldirako, LGIPk aplikatu beharreko neurrien finantziarioaren gaineko programa jakina barne hartzen du. Finantza-plan horren barne hartzea derrigorrezkoa da EBko 1257/1999 Araudiarekiko, zeinaren arabera EAEk LGIPren bitartez alor honetan dagokion finantziario guztia (EGEF, EFS, FEOGA) jasotzen duen. Horrez gain, finantziario-programazioa gauzatzeko aurreko plan estrategikoen zeukaten gabeziatariko bat gaituzten du. Gainera, aurreko planek ez zeukaten LGIPk aurkezten duen neurri-multzo landu eta zabala.

---

12. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolaketa Saila (2007): <[http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-4975/eu/contenidos/informacion/natura\\_2000/eu\\_10989/datos\\_superficie.html](http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-4975/eu/contenidos/informacion/natura_2000/eu_10989/datos_superficie.html)>.

13. «Deben ser un pilar básico sobre el que se articule el PDRS» (EJ, 2000: 48).

14. «Es un elemento esencial en el desarrollo de las regiones» y «en factor de competitividad» (*ibid.*, 46).

### 3.1.1. Neurriak esparru estrategikoen arabera

LGIPn proposatutako neurriek estrategia jakinaren artikulazioa dute helburu, zeina, aurreko planetan gertatu bezala, funtzio-aniztasunaren diskurtsoaren buru den eta landa-eremuaren gaineko ikuspegi integratua hartzen duen. Hala ere, «nekazaritza-jardueraren finkatzea» (EJ, 2000: 66)<sup>15</sup> LGIPren lehentasunetarikoa bat dela ere aipatzen da, eta baserritarra landa-inguruko funtsezko eragile gisa identifikatzen da. Izan ere, planaren helburu operatiboan artetik nekazaritzarekin lotutakoak dira gehientsuenak eta tamaina handienekoak.

Aurreko plan estrategikoetan ezarritako lehentasun-esparruak erreferentziatzen harturik, LGIPn proposatutako neurriak esparru horien arabera sailkatzeko ariketa praktikoa egin daiteke, 2. taulak adierazi bezala. Horrela, ondorengo esparruak bereizten dira: nekazaritzako elikagai-sektorea, landa-garapena eta ingurumen-esparrua. Halaber, azken horri lehen bi esparruetako zenbait neurri atxiki dakizkioke ingurumenaren gain eragin zuzena izateagatik.

Nekazaritzako elikagai-sektorearen esparruan kokatutako neurriek finantziazio-bolumen nagusia bereganatzen dute, 2000-2006 denboraldirako aurreikusitako % 65 hain zuzen ere. Nekazaritza-ustiapenetan inbertsioak eta nekazaritza-produktuen transformazioan eta merkaturatzean hobekuntza nabarmentzen dira; izan ere, bi neurri horiek aurreikusitako baliabide guztien % 54 xurgatzen dute. Hala ere, bi kontusail horiek finantziazio pribatu gehien jasotzen dutenak dira, oro har, esku pribatuetatik datorren finantziazioaren % 70 bereganatzen dutelako. Izan ere, nekazaritzako elikagai-sektorerantz zuzendutako guztizko finantziazioaren % 60 pribatua izatea aurreikusten du planak, alorreko enpresaburuek bere gain hartu beharreko buruzagitza azpimarratuz.

Landa-garapen esparruan finantziazio pribatua eta publikoa % 50ean daude. Neurri multzo honek 2000-2006 denboraldirako aurreikusitako finantziazio totalaren % 27 adierazten du. Multzo honetan baso-azpisektorearekin harremanetan izandako neurriak (basogintza eta nekazaritza-lurren basotzea) gailentzen dira esparru honetako baliabideen % 62az jabetzen baitira<sup>16</sup>. Gainera, neurriok dira hain zuzen ere diru pribatu gehien jasotzen dutenak esparru honetan (% 65 inguru), beraz, esparru honetan kontuan hartuko ez balira, finantziazio-bolumen gehiena publikoa izango litzateke. Bestetik, landa-inguruko habitataren hobekuntzarako neurriak (landu-inguruko ekonomia eta populaziorantz zuzendutako oinarrizko zerbitzu-hornitzea; nekazaritza-azpiegituren garapena eta hobekuntza; herrien garapena eta landa-ondarearen babesa), baliabide guztien % 8 baino gehiago, esparru honetan ere kokatzen dira.

---

15. «La consolidación de la actividad agraria» (EJ, 2000: 66).

16. Baso-azpisektorearen inguruko neurriak esparru honetan barneratzeak jarduera ekonomikoaren dibertsifikaziorako elementuak diren horretan du bere oinarria, ingurumen-zerbitzu nabarmenak lortzeko gai ere izan arren.

2. taula. 2000-2006 LGIPren finantza-dotazioak esparru estrategikoen arabera.

NEURRIAK	Euroak	Guztiare- kiko %
<b>NEKAZARITZAKO ELIKAGAI-SEKTOREAREN ESPARRUA:</b>		
I. Nekazaritza-ustiattegietan inbertsioak	85.510.130	17,10
II. Nekazari gazteen kokatzea	1.915.200	0,38
IV. Nekazaritza-jardueraren behar baino lehenagoko uztea	5.231.630	1,05
V.a. Gutxietsitako eremuetara zuzendutako kalte-ordain konpentsatzaileak*	16.802.730	3,36
VII. Nekazaritza-produktuen transformazioan eta merkaturatzean hobekuntza	187.841.300	37,56
IX.a. Nekazaritza-lurren hobekuntza	1.009.340	0,20
IX.b. Nekazaritza-lurren birpartzelazioa	3.757.400	0,75
IX.c. Nekazaritza-ustiategiak kudeatzeko ordezkatzeko eta asistentzia-zerbitzuak	636.440	0,13
IX.d. Kalitatezko nekazaritza-produktuen merkaturatzea	10.863.980	2,17
IX.h. Nekazaritzarako ur-baliabideen kudeaketa <sup>4</sup>	8.950.720	1,79
IX.i. Hondamendi naturalek kaltetutako nekazaritza-produkzio ahalmenaren berreskuraketa	1.013.930	0,20
<b>Nekazaritzako elikagai-sektorearen esparrua guztira:</b>	<b>323.532.800</b>	<b>64,69</b>
<b>LANDA-GARAPENAREN ESPARRUA:</b>		
III. Prestakuntza	2.454.490	0,49
VIII.a. Basogintza*	32.321.640	6,46
VIII.b. Nekazaritza-lurren basotzea*	50.824.620	10,16
IX.e. Landa-inguruko ekonomia eta populaziori zuzendutako oinarrizko zerbitzu-hornitzea	17.657.690	3,53
IX.f. Herrien garapena eta landa-ondarearen babesa eta kontserbazioa	8.830.920	1,77
IX.g. Jardueren dibertsifikazioa nekazaritza eta inguruko alorretan	2.378.030	0,48
IX.i. Nekazaritza-azpiegituren garapena eta hobekuntza	14.441.500	2,89
IX.j. Turismo eta artisautzaren sustapena	5.675.510	1,13
<b>Landa-garapenaren esparrua guztira:</b>	<b>134.584.400</b>	<b>26,91</b>
<b>INGURUMEN-ESPARRUA</b>		
V.b. Ingurumen-babes murriztapenak konpentsatzeko ordainketak	2.096.830	0,42
VI. Nekazaritza-ingurumen neurriak	30.572.450	6,11
VIII.c. Basoen babes- eta ekologia-funtzioa bermatzeko laguntzak	6.886.820	1,38
IX.k. Ingurumenaren babesa, paisaiaren kontserbazioa eta animalien ongizatea	273.490	0,05
<b>Ingurumen-esparrua guztira:</b>	<b>39.829.590</b>	<b>7,96</b>
*(V.a. Gutxietsitako eremuetara zuzendutako kalte-ordain konpentsatzaileak)	16.802.730	3,36
*(VIII.a. Basogintza)	32.321.640	6,46
*(VIII.b. Nekazaritza-lurren basotzea)	50.824.620	10,16
*(IX.h. Nekazaritzarako ur-baliabideen kudeaketa)	8.950.720	1,79
<b>Ingurumen-esparrua guztira + ingurumenaren gain eragin zuzena duten neurriak</b>	<b>148.729.300</b>	<b>29,74</b>
Ebaluazioa	202.320	0,04
Antzinako neurriak	2.004.020	0,40
<b>GUZTIRA</b>	<b>500.153.130</b>	<b>100,00</b>

Iturria: norberak eginda EAEko 2000-2006 Landa Garapen Iraunkorreko Planetik abiatuta. Neurri bakoitzerako finantza-tauletatik hartutako zifrak.

(\*): Ingurumenaren gain eragin zuzena duten neurriak.

Azkenik, ingurumena ahalik eta egoera hoberenean mantentzera zuzendutako neurriak aurreikusten dira. Finantziario publikoa jasotzen dute oro har, eta zentzu hertsian ondorengo neurriak hartuko ditu esparru honek kontuan: nekazaritza-ingurumen neurriak, basoen babes- eta ekologia-funtzioa bermatzeko laguntzak, ingurumen-babes murriztapenak konpentsatzeko ordainketak, eta ingurumenaren babesa, paisaiaren kontserbazioa eta animalien ongizatea. Azken bi neurriek batura aurreikusitako baliabide guztien % 0,5 soilik estaltzen duten bitartean, basoen ingurumen-funtzioak bermatzera zuzendutako neurriak ez ziren egikaritu ere egin 2000-2006 denboraldian (EJ, 2008b: 142). Hortaz, lehen aipatu bezala, nekazaritza-ingurumen neurrien barmatzea izan da planaren aspekturik esanguratsuenak bai beren ingurumen-eragina bai finantziario-hornidura direla eta. Dena dela, ezin alde batera utzi neurriok zenbait urte lehenago aplikatzen hasiak izan zirela EAEn (1996az geroztik Bizkaian, 1997an Araban eta 1999an Gipuzkoan), nahiz eta tamaina txikian izan.

Nekazaritza-ingurumen neurrien aplikazioa Europar Erkidegoko (EE) 2078/1992 Araudiaren arabera garatzen da, zeina 1992ko NPBren erreforma ostean abian jarri zen. Neurrien aplikazioa derrigorrezkoa da estatu kideentzat, EBko 1257/1999 Araudiaren arabera, nahiz eta hautazkoa gertatu nekazariarentzat. Oinarrian dagoen ideia da nekazariak ingurumena kaltetzen ez duten jarduerak egitearen truke diru-ordainketa konpentsatorioak (uko egiten zaion errentagarritasuna berreskuratzearen) jasotzea 5 urtetarako sinatzen den kontratupean. Oro har, 2000-2006 denboraldian onartutako eskakizun kopurua hazi zen, nahiz eta 2005 eta 2006 urteetan kontratu berrien kopuruak nabarmenki behera egin zuen aurreko urteetakoekin alderatuta (EJ, 2008b: 105). Neurri hauei atxikitutako lurzoruen azalera ere gora egiten du aipatu denboraldian, nahiz eta hasiera bateko aurreikuspenetatik dezente urrun kokatzen den (EJ, 2000: 259); neurriok 2005 eta 2006 urteetan soilik EAEko Nekazaritza Azalera Erabilgarriaren (NAE) % 11 hartzera ailegatzen dira, denboraldiko gainerako urteetan % 10ean edo azpitik kokatuz (2008b: 113).

Halaber, ingurumen-neurrioi beste neurri multzoa gehitu ahal zaio, inguruarekin duten harreman zuzena dela-eta ingurumen-esparrua osatuko luketenak<sup>17</sup> (2. taula). Baso-azpisektorerak zuzendutako neurriez gain, talde horretan gutxietsitako eremuetara zuzendutako kalte-ordain konpentsatzaileak eta nekazaritzarako ur-baliabideen kudeaketa sartuko lirateke, biak nekazaritza-sektoreko esparruan. Azken neurri horien helburuen artean, esaterako, lehen kasuan nekazaritza-sistema iraunkorren sustapena dugu eta bigarrean sail ureztatuaren ingurumen-eraginaren gutxitzea legoke. Horrela, ingurumen-neurriak zentzu zabalean hartuta, 2000-2006 denboraldiko aurrekontu guztiaren ia % 30 bereganatuko dute (2. taula), zenbateko horren % 64k jatorri publikoa duelarik<sup>18</sup>.

Hortaz, LGIPren alorrean ingurumen-izaera duten neurriek pisu erlatibo esanguratsua hartzen dute finantza-ikuspuntutik, nahiz eta nekazaritza-sektorearekin zuzenki harremanetan izandako neurriek baliabide-bolumen handiagoa bereganatzen duten. Ingurumen-izaera duten neurrien aplikazioak esparru horretako estra-

---

17. Izarrarekin adieraziak 2. taulan.

18. Baso-azpisektoreari lotutako neurriak kontuan hartzeak finantziario pribatuaren partaidetza haztea ahalbidetuko du ingurumen-neurri hertsiekin alderatuta.

tegia jakinari erantzuten dio, zeina neurri handi batean EBko testuinguruan abian jarritako proposamen eta ekintzetatik eratorzen den. Natura 2000 Sarean eragin positiboa duten neurrien garapena, gainesplotazioa mugatzen duten konpentsazioen ezarpena edota ingurumen-babes murriztapenak dituzten eremuetan eragina duten neurrien gauzatzea dira LGIPk EAerako egokitu eta kudeatu nahi dituen ekimenetariko batzuk. Ikuspuntu honetatik jorratuta badago landa-garapen politikaren eta ingurumen-politikaren arteko bateratze puntu bat; izan ere, lehenak zenbait neurri bere gain hartzen ditu bigarrenari dagozkion helburu orokorrei erantzutearren. Bi alderdien konbinazioak ondorio jakina ematen du aditzera: landa-eremuetako ingurumenaren egoera egokiak inguru horietako garapena bultzatzeko balio izan dezala, hain zuzen ere LGIPk adierazi bezala «ingurumenaren kontserbazio, babes eta hobekuntza aspektuak inguru horietako garapenaren bektore gisa azaltzen» (EJ, 2000: 74)<sup>19</sup> direla dionean. Era horretan, ingurumen-balioen irakurketa ekonomikoa agertzen zaigu landa-eremuen garapenaren bultzatzaile potentzial gisa.

### **3.2. LGP (2007-2013): ingurumen-protagonismoaren sendotzea landa-garapenean**

2007-2013 finantziazio-denboraldirako abian jarri berri den LGPk arreta berezia eskaintzen dio ingurumenari. Aurreko planen modura, haren helburu nagusiak aitzindariak diren hiru esparrutan oinarrituko dira, zeinei LEADER ekimenarekin gauzatzen den ikuspegi horizontala gehituko zaien laugarren ardatz gisa:

- I Ardatza. Nekazaritza-sektorearen lehiakortasuna. Programaren LGNFE<sup>20</sup> gastuaren % 60,2 (% 0,3 LEADER).
- II Ardatza. Ingurumenaren eta landa-inguruaren hobekuntza. Programaren LGNFE gastuaren % 25.
- III Ardatza. Bizi-kalitatearen hobekuntza landa-eremuetan eta bere ekonomiaren dibertsifikazioa. Programaren LGNFE gastuaren % 14,1 (% 9,05 LEADER).
- IV Ardatza. LEADER ikuspegia. Programaren LGNFE gastuaren % 10 (% 0,65 ardatzaren neurri propioak; % 9,35 I eta III Ardatzen barne).

LGPK aipatu diren lau ardatzen inguruko 7 helburu espezifiko, beste 14 helburu operatibo eta 28 neurri ezarri ditu hasierako hipotesi jakinekin koherentea den estrategia bat bultzatuz. Hori bai, Espainiako Landa Garapenerako Esparrua 2007-2013<sup>21</sup> delakoari jarraitu behar izan dio neurriak aukeratzeko orduan. Edonola ere, aurreko planen ikuspegiari jarraituz, programaren kontzepzioak landa-inguruaren funtzio-aniztasunean du bere egituraketa. Horrez gain, LGPk lurralde-eta populazio-helburuak areagotzen ditu bere aitzindariarekin alderatuz; izan ere, EAEko lurraldearen % 87an eta ia 200.000 biztanlerengan izango du eragina (LGIP 2000-2006 planak lurraldearen % 55 eta 75.000 bat pertsona zituen helburu). Bere

---

19. «Los aspectos conservacionistas y de protección y mejora del medio se planean como un vector de desarrollo de las zonas» (EJ, 2000:74).

20. Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtza: «Fondo Europeo Agrícola de Desarrollo Rural (FEADER)».

21. «Marco Nacional de Desarrollo Rural 2007-2013».

eragin sozial zabalagoaren beste adierazle bat dugu programa guztian emakumezkoen eta gazteen zeharkako laguntza eskaintzea. Aurrekontu aldetik ere, ekarpen publikoa hazi egin da aurreko finantziario-denboraldiarekin alderatuz gero, 245 milioitik 280 milioira igo baita (% 14ko hazkundea). Horrekin bat, EAEko instituzioek egindako ekarpena hazi egin da, 122 milioitik 202 milioira, EBtik etorritakoarekin (LGNFE) alderatuz, zeina 122 milioitik 78 milioira murriztu den.

Ingurumenaren ikuspegitik, ardatz jakin batek arloa esplizituki jorratzen harrigarria da, hainbat arrazoi eman daitezke programa honek, itxuraz bederen, ingurumen-ikuspegi sendoa baten alde egiten duela baieztatzeko. Alde batetik, LGPk emandako hasierako hipotesien artean, nekazaritza-jardueraren mantentzeak ingurumen-efektu onuragarriak izango dituela adierazten da. Planteamendu hau eztabai-dagarria izan daiteke jarduera jakinen arabera ingurumen-efektuak ezkorrak ere izan daitezkeelako, baina edozein kasutan jardueraren sustapenak nekazaritza bertan behera uztearen ondorioz sortutako ingurumen-arazo larriak ekidituko lituzke. Egia esan, planteamendu hau ez da aurreko planek azaldukotik asko urruntzen. Horrez gain, *a priori* ebaluazioak I eta II Ardatzen arteko sinergia positiboak aurrekusten ditu (EJ, 2007). Zentzu berean, ezin ahanzi ebaluazioak oro har jokatu duen paper garrantzitsua ingurumen-ikuspegia efektiboki programa honetan barnera zedin. Batetik, 2000-2006 LGIPren bitarteko ebaluazioak eta bere eguneratzeak ingurumenaren aldetik burututako gomendioak barneratuak izan dira LGPn, eta bestetik, LGPk Ingurumen Ebaluazio Estrategikoa gainditu behar izan du.

Bestalde, proposatutako neurrien artean, aipagarria da basogintzarako diru-laguntzak Basogintza Iraunkorreko Kudeaketa Planak abian jartzeak baldintzatuko dituela. Horrek basogintza-eredu iraunkorragoa lagun dezake baina beronen aplikazioa zein modutan gauzatzen den izango da gakoa ezarritako helburuak lortzearen. Halere, LGPk plazaratutako aldaketarik esanguratsuen agian *Nekazaritza-Ingurumen Kontratu*<sup>22</sup> dugu. Espainiako Esparruko kontestupean azalduko kudeaketa-era berri hau nekazaritza-ingurumen neurrien aplikazioa hobeto artikulatzeko bidean izan da ezarria. Ez du nekazaritza-ingurumen neurrien berezko planteamendua ordezkatzeko, baizik eta haien egiteko era eraldatzeko asmoarekin oinarri bikoitzarekin izan da sortua. Alde batetik, nekazaritza-ustiapenaren hasierako diagnostikoa behartuko du, zeina nekazaritza-jarduerak ingurumenean izan dezakeen eraginaren gaineko erreflexioa bultzatzera izango den bideratua; bestetik, diru-laguntzak jaso ditzaketen ekimenak zehazteko, baita diru-laguntzak kalkulatzeko ere metodo berria ezarriko du.

Ingurumen-esparruko neurrien finantziarioari dagokionez, haren kopurua dezente hazi da 2000-2006 finantziario-denboraldiarekin alderatuz gero. Halere, II Ardatzerako finantziarioa EBk ezartzen duen minimoa besterik ez da, LGNFE gastuaren % 25 alegia (19,55 milioi). EAEko administrazioek beste horrenbeste jarriko dute LGNFEren kofinantziarioa % 50ekoa izanik. LGNFE gastua urria delako kritika uxatzekotan, LGPk berak adieraziko du II Ardatzeko neurriei I Ardatzean kokatutako eta ingurumen-eragin onuragarria duten ekimenen finantziarioa gehitzen baldin badiegu, LGNFE gastuaren % 40a ailegatzen dela (EJ, 2008a: 104).

---

22. «Contrato Agroambiental».



Horrez gain, LGPtik kanpoko bideetatik administrazioek ingurumena zaintzearen alde burutuako gastua aintzat hartuko bagenu, esaterako Natura 2000 Sarean, horrexek ere haziko luke ingurumen-esparruko finantziarioa eta, hortaz, II Ardatzeko gastua EBk ezarritako minimoa izatea justifikatuko luke (*ibid.*). II Ardatzeko neurrien artean, nekazaritza-ingurumen laguntzek ardatz-gastuaren % 45 inguru suposatzen dute (LGNFE gastuaren % 11,2 dena) (ikus 3. taula), LGPren testuinguruan duten garrantzia adieraziz. Kalte-ordain konpentsatzaileek (mendi-inguruetarako zein gutxietsitako eremuetarako) ardatz-gastuaren herena bereganatuko dute eta basogintzari zuzendutakoa ia % 20 izango da.

### 3. taula. LGPko (2007-2013) II Ardatzeko neurri multzoa eta bere finantziarioa.

NEURRIAK	LGNFE gastuaren %			Ardatz-gastuaren %
	Guztira	LEADER	Espainiako Esparrua (2)	
214. Nekazaritza-ingurumen laguntzak	11,2	-	-	44,8
211. Mendi-inguruetarako kalte-ordain konpentsatzaileak	8,0	-	-	32,0
226. Baso-berreskuratzea eta prebentzio-neurriak	3,3	-	0,3	13,2
225. Baso-ingurunerako laguntzak	1,6	-	0,9 (1)	6,4
212. Gutxietsitako eremuetarako kalte-ordain konpentsatzaileak	0,5	-	-	2,0
227. Inbertsio ez-produktiboetarako laguntzak	0,3	-	0,1	1,2
221. Nekazaritza-lurren basotzea	0,1	-	-	0,4
<b>GUZTIRA</b>	<b>25,0</b>	<b>-</b>	<b>1,3</b>	<b>100,0</b>

Iturria: EJ (2008a: 265).

(1) % 0,7 baso-eremuetako Natura 2000 Sarera zuzenduko litzateke eta % 0,2 suteen prebentziora.

(2) Neurri jakinetarako ekimen horizontalak izango dira Espainiako Landa Garapenerako Esparrutik eratorrita.

EBko 1698/2005 Araudian oinarrituta (47 eta 49 artikulua), ingurumen-esparruko laguntzen zati batek bederen NEBetan eragin zuzena izatea bilatuko da. Batetik, baso-eremuetan kokatuta dauden Natura 2000 Sareko gunetara zuzenduko dira laguntzak. Hain zuzen ere, baso-ingurunerako laguntzen % 0,7 eta inbertsio ez-produktiboetarako laguntzen % 0,1 gune horietara zuzenduta egongo dira. Bestetik, Natura 2000 Sarean kokatutako nekazaritza-eremua izatea lehen-tasun-irizpidetzat hartuko da nekazaritza-ingurumen laguntzak emateko orduan. Aipatutako neurriok izan dezaketen eragina alde batera utzita, era honetako ekimenekin berriro ere agerian geratzen da NEBek eta landa-garapenak duten harreman estua.

### 4. Azken gogoetak

Landa-eremu gehientsuenek azken hamarkadetan jasan duten gainbehera ekonomiko eta demografiko hazkorrek beren errebisio kontzeptuala bultzatu du. Birplanteamendu kontzeptual eta funtzional honek landa-eremuek gordetzen dituzten lurralde- eta giza potentzialtasunen sustapena bilatzeko aukera eman du. Era honetan, landa-garapen politikak lurralde- zein ingurumen-osagaiak hazkorki beren programetan barneratuz joan dira, EAEko kasuan gertatu bezala. Horrekin

batera baliabide finantzarioak ere hazi egin dira, eta horrek bat egiten du landa-politikari egotzitako helburuen hedapenarekin.

Burututako analisiak adierazi bezala, EAEko landa-garapen politikaren bilakaeran hiru elementu gailendu egin dira *ingurumentze*-prozesu honi lotuta: basogintza, nekazaritza-ingurumen neurriak eta NEBak. Lehenari dagokionez, oro har landa-garapen planen efektuak azpisketore honetan eskasak izan dira ingurumenaren alderditik, nahiz eta basoen funtzio ekologikoa behin eta berriro goraiatu izan den. Horren adibide argia dugu, aipatu bezala, 2000-2006 denboraldian basoen ingurumen-funtzioak barneratzera zuzendutako neurriak aplikatu ere ez direla egin. Horrez gain, nekazaritza-lurren basotzeari dagokionez, ekimen hau EAEn zenbait hamarkada lehenago gertatu zen, eta ez dirudi neurri hauek, berandu ailegatzeaz gain, aldaketa nabarmenik sor dezaketenik lurraren erabilera ezta ingurumen-orekan ere (Ruiz Urrestarazu, 1999). Alegia, basogintzak ikuspegi produktibista izaten jarraitzen duela nabarmendu behar da, Bizkaian bereziki, non baso-politikak produkzio-funtzioa lehenesten duen funtzio sozial eta ekologikoaren aurretik (Esparta, 2009).

Bestetik, nekazaritza-ingurumen neurrien plazaratzeak jauzi kualitatibo garrantzitsua eragin du landa-garapen politikaren bilakaeran. Bere aplikazioak, ordea, argi-itzal dezente izan ditu. Aipatu bezala, kontratu kopurua eta neurrioi atxikitutako azalera dezente hazi ziren 2000-2006 denboraldian, nahiz eta LGIPren hasierako aurreikuspenak ez ziren bete. Gabeziarik handiena, halere, neurri honetan egokitutako jarduera-lerroetatik (22 lerro) laguntzak soilik gutxi batzuetan kontzentratu direla dugu; kontratu guztien % 80 3 lerroren inguruan egin ziren, belardien eta baserri-inguruaren kontserbazioarekin zerikusia zutenak. Horrez gain, badira beste zenbait atal hobetzear daudenak. Orain arte erabilitako ebaluazio eta kontrol moduekin ez daukagu jakiterik neurrioren ingurumenaren gaineko efektu errealak zeintzuk diren. Alegia, ingurumen-diagnostikoen gabezia dela-eta, ez daukagu jakiterik gerta litezkeen ingurumen-onuren eta neurrioren itzalpean barneratutako jarduera konkretuen arteko «kausa-efektu» harremanik ote dagoen (EJ, 2008b: 117). Horrela, baserriar askok diru-laguntzok errenta osagarri gisa ulertu dituzte, ingurumenaren aldeko aldaketa nabarmenik bultzatu gabe beren jardueretan. Dena den, zentzu horretan, baliteke abian jarri berria den nekazaritza-ingurumen kontratuak nolabaiteko aldaketa ekartzea neurrioren artikulazioan. Edozein kasutan, zuhurtasunez jokatu behar da eta arrazoizko denboraldi jakina itxaron behar dugu kontratuaren eta nekazaritza-ingurumen neurrioren efektuak 2007-2013 denboraldian zehar zeintzuk diren ezagutzeko.

Ingurumenaren babesa eta aldi berean garapen sozioekonomikoa gertatzeko zabalduko bideetariko bat, antza, NEBen politikak bete dezake. Naturaren kontserbazio-politika EAEn landa-garapen politikari lotuta garatu da, landa-eremuaren gaineko jarduera alor zabal baten testuinguruan. Zenbaitetan naturaren kontserbazio-politika marketing politiko (Garayo, 2001) gisa erabil daitezkeen arren, badirudi bioaniztasuna eta natura-baliabideen zaintzea (NEBei atxikitutako lehen helburua) bermatu egiten duela neurri handiagoan edo txikiagoan. Ordea, zalantza-garriagoa gertatzen da NEBen inguruko biztanleriaren garapen sozioekonomikoa lortzearen helburua betetzea. Hau helburu desiratua da eta, horrez gain, EAEko landa-garapen eta naturaren kontserbazioaren inguruko dokumentu eta legedian

oro har espresuki adierazita agertzen da. Halere, helburu sozioekonomiko honen lorpena ez da erraza eta gainera kolokan jartzerik ere badago; izan ere, jasotzen duten finantza-pizgarritik harago, zein onura lortuko ditu baserritar edo baso-jabe batek bere jarduerak gauzaten dituen eremua NEB izendatuz gero? Hirugarren sektoretik eratorritako diru-sarrera potentziales konpentsatzen ote dituzte erabilera-eta jarduera-murriztapenak? Izatez, nekazaritza-jardueraren gainbehera orokortuak, baita egun babestuta dauden natura-guneetan ere, nekazarien irautea neurri handi batean jasotako laguntzen menpe egotea dakar. Era horretan, NEBetako tokiko biztanleriaren sustapen sozioekonomikorako bidea antza denez hirugarren sektoreko jarduera jakinen gain eroriko da (artisautza-produktuen salmenta, nekazaritza-turismoa, kirol-jarduera jakinak, etabar), zeinen eragina erabat aldakorra den natura-gune babestu bakoitzaren arabera.

Honekin lotuta, azken hamabost urteetan EAEn jazotako NEBen hazkunde orokortua dela-eta, zenbait *arrisku* antzeman daitezke. Gainera, etorkizunera begira Natura 2000 Sarearen hedapen nabarmena aurreikusten denez, baliteke arriskuok erraztasun handiagoz agerraraztea. Alde batetik, Natura 2000 Sarearen hazkunde-prozesuaren testuinguruan, ezinbestekoa dugu beren ebaluaziorako tokiko-biztanleriaren partaidetza sustatzea eta horrekin batera irizpide sozioekonomioak kontuan hartzea ebaluazio-metodo berritzaileen alorrean. Erabateko garrantzia du horrek egiteke dauden kudeaketa-planen testuinguruan, bestela, garapen sozioekonomikoko helburuak Natura 2000tik guztiz baztertuta geratzeko arriskua dugu. Ez dadila gertatu EAeko Parke Naturalekin gertatu bezalaxe, non 16/1994 Legeak aurriztuen dituen sustapen sozioekonomikorako programa bat bera ere ez den abian jarri (programa bana Parke Natural bakoitzeko aurreikusten du legeak).

Bestetik, aintzat izan behar da natura-gune babestuen inguruan aisialdi-jarduerak bultzatzea aurka ere bilaka daitekeela; izan ere, populazioak NEBen gain sor dezakeen presioa azpimarratzeko modukoa da. NEB jakin baten izendapena berez erakargarritasun-zio nahikoa izan daiteke nagusiki hiri-populazioaren bisita jasotzeko. Horrela, babestutako eremuak gehiegizko aisialdi-presioa jasoko luke, EAEn bereziki, natura-guneetatik distantzia laburrera populazio-pilaketa esanguratsuak kokatzen direlako. Parkeen inguru hurbileko udalerrri guztiak batuta populazioa 400.000 biztanletik gora doa<sup>23</sup>, horrek ingurumenerako ekar lezakeen arriskuarekin.

Azkenik, naturaren kontserbazio-politikako lehen helburuaren gaineko eragin-kortasunagatik ere galde genioke geure buruari. Kontserbazio-politika bioaniztasunaren babeserako tresna dugu eta, esan bezala, neurri handiagoan edo apalagoan helburu hau beteko du; baina sarritan beste era bateko politika sektorialekin talka egiten du, zeinek, oro har, ez dioten mesederik egiten natura-baliabideen kontserbazioari. Hots, zenbait jarduera ekidin beharko liratekeela bioaniztasuna egoera egokian mantentzearen: ohikoa da garraio-azpiegitura erraldoiek, energia-instalazioek, gehiegizko etxebizitzaren eraikuntzak, etabarrek natura-guneak deuseztatzea. Alegia, sarritan ez *egitea* natura kontserbatzeko politika aktibo bat baino eraginko-

---

23. Parke Naturalen Eragin Sozioekonomikoko Esparruko (ESE) udalerriak hartu dira kontuan zenbaketarako. 16/1994 Legeak zehaztu bezala (22 art.), ESE natura-gunea dagoen udalerrietan kokatuko da. Pagoetako Parke Naturalak Donostia udalerrria barne hartzen duela adierazi behar da, populazio-zenbaketan kontuan izan dena.

rragoa dela bioaniztasunaren mesedetan. Baina tamalez hamaika kasu ezagutzen dira zeinetan politika sektorial jakinen helburuak (garraio-politikarena, esaterako) naturaren kontserbazioarenari aurrejartzen zaizkion, azken honen araudiari inongo jaramonik egin gabe eta berau guztiz baztertuz.

## Bibliografia

- Atance, I. eta Tió, C. (2000): "La multifuncionalidad de la agricultura: aspectos económicos e implicaciones sobre la política agraria", *Revista Española de Estudios Agrosociales y Pesqueros*, **189**, 29-48
- Azqueta, D. (1996): *Gestión de espacios naturales. La demanda de servicios recreativos*, McGraw-Hill, Madril.
- , (2002): *Introducción a la economía ambiental*, McGraw-Hill, Madril.
- Baldock, D.; Dwyer, J.; Lowe, P.; Petersen, J-E. eta Ward, N. (2001): *The nature of rural development: Towards a sustainable integrated rural policy in Europe. A ten-nation scoping study*, Europako Ingurumen Politikako Institutua, Londres.
- Barreiro, J.; Soler, F. eta Pérez y Pérez, L. (2004): "How much does it cost to include a marginal rural areas as a Natura 2000 site? Social costs and expenditures for compensation schemes", *Spanish Journal of Agricultural Research*, **2(3)**, 287-300.
- Dixon, J.A. eta Sherman, P.B. (1990): *Economics of protected areas. A new look at benefits and costs*, Island Press, Washington, DC.
- Esparta, I. (2009): "Multifuntzionaltasuna eta baso-eredu produktibistaren krisia. Funtzio ekologikoak Bizkaiko baso-politikan", *Uztaro*, **68**, 5-30.
- Europar Batasuneko Kontseilua (2005): *Reglamento (CE) nº 1698/2005 de 20 de setiembre de 2005 relativo a la ayuda al desarrollo rural a través del Fondo Europeo de Agrícola de Desarrollo Rural (FEADER)*, Europar Batasuneko Egunkari Ofiziala (2005.10.21), Brusela.
- Europar Batzordea (2008): *Agricultura: la revisión de la PAC ayudará a los agricultores a afrontar nuevos retos*, Prentsa komunikatua. IP/08/1749. Eskuragarri (2009.04.21): <<http://europa.eu/rapid/pressReleasesAction.do?reference=IP/08/1749&format=HTML&aged=0&language=ES&guiLanguage=en>>.
- Europar Erkidegoen Batzordea (1988): *El futuro del mundo rural*, Batzordearen Komunikazioa Europar Parlamentuari eta Kontseiluari, COM(88) 501 azkena, Brusela.
- Eusko Jaurlaritza (1992): *Plan Estratégico Rural Vasco. Líneas Generales de Actuación 1992-1996*, Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzua, Gasteiz.
- , (1994): 30-6-1994 Legea, 16/1994 zk.; Naturaen Kontserbazioari buruz. Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza, Gasteiz.
- , (1996): *Plan de Actuación para el Desarrollo del Medio Rural Vasco 1997-2000. Marco general para una política en favor del Espacio Rural Vasco*, Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza, Gasteiz.
- , (1999): "La política agraria y rural en el País Vasco", *Inguruak*, **25**, 139-154, Euskal Soziologia Elkarte, Bilbo.
- , (2000): *Plan de Desarrollo Rural Sostenible 2000-2006*, Nekazaritza eta Arrantza Saila, Gasteiz.
- , (2003): *Informe de Evaluación Intermedia del PDRS de la CAPV 2000-2006*. argitaratu gabea.
- , (2005): *Actualización del Informe de Evaluación Intermedia del PDRS de la CAPV 2000-2006*, argitaratu gabea.
- , (2007): *Informe de Evaluación a priori. Programa de Desarrollo Rural Sostenible del País Vasco 2007-2013*, IV. eranskina – separata dokumentua, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila, Vitoria-Gasteiz.

- , (2008a): *Programa de Desarrollo Rural del País Vasco 2007-2013*, 2008ko irailaren 25eko bertsioa, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila, Vitoria-Gasteiz.
- , (2008b): *Informe de Evaluación ex-post del PDRS de la CAPV 2000-2006*, argitaratu gabea.
- Florido, G. eta Lozano, P. (2003): “La protección de espacios y especies dentro de la ordenación territorial. Las diferentes escalas legislativas: Europa, España y País Vasco”, *Lurralde: investigación y espacio*, **26**, 181-200.
- Garayo, J. M. (1999): “Poder político y conservación de la naturaleza: los espacios naturales protegidos en la Comunidad Autónoma del País Vasco (1989-1998)”, in B. Valle, (koord.), *Geografía y Espacios Protegidos*, AGE, FENPA, Murtzia.
- , (2001): “Los espacios naturales protegidos: entre la conservación y el desarrollo”, *Lurralde: investigación y espacio*, **24**, 271-293.
- Garayo, J. M.; Urzainki, A.; Askasibar, J.; Portugal, J. A.; Torres, M. C. eta Serrano, S. (1998): *Euskal Herriko geografía. Landa eta industri eremu eta jarduerak*, Ostoa, Lasarte-Oria.
- Garbisu, J. (2002): “Situación, evolución y perspectivas del sector agrario de la CAPV”, *Libro Blanco de la Agricultura y el Desarrollo Rural 2003-ren aurkezpen jardunaldiak*, eskuragarri (2009.04.21): <<http://www.libroblancoagricultura.com>>.
- Garbisu, J. eta Iriondo, J. (2007): “Plan de Desarrollo Rural Sostenible 2007-2013: una herramienta de futuro”, Erreportaia. *Sustrai*, **81**, 42-47.
- García, O. (2007): “De los Parques Naturales a Natura 2000: consecuencias para el desarrollo socioeconómico del territorio rural alavés”, *Jornadas sobre población y territorio en Álava: claves explicativas de la dinámica demográfica, territorial y desarrollo local*, Gasteiz, 2007ko otsaila.
- Izcarra, S.P. (2001): “La ecologización de la PAC”, *Revista de Estudios Europeos*, **27**, 3-24, Europar Ikasketen Institutua, Valladolid.
- Lowe, P.; Buller, H. eta Ward, N. (2002): “Setting the next agenda? British and French approaches to the second pillar of the Common Agricultural Policy”, *Journal of Rural Studies*, **18**, 1-17.
- Lucio, A.J. (2002): “Red Natura 2000, espacios naturales protegidos y desarrollo rural en Cantabria”, *Libro Blanco de la Agricultura y el Desarrollo Rural 2003-ren aurkezpen jardunaldiak*, eskuragarri (2009.04.21): <<http://www.libroblancoagricultura.com>>.
- Malagón, E. (2001): “La multifuncionalidad en las políticas de desarrollo rural en la CAPV”, in A. I. García, M. C. Lorenzo eta E. López, (koord.), *Actas del IV Coloquio hispano-portugués de estudios rurales*, Konpostelako Santiago.
- Murua, J. R.; Eguía, B. eta Malagón, E. (2005): “Las políticas de desarrollo rural en la CAE: un balance”, *Ekonomiaz*, **60**, 90-109.
- Rubio, P. (1999): “El postproductivismo en los espacios rurales”, in Galdós eta E. Ruiz Urrestarazu, (koord.), *Postproductivismo y medio ambiente. Perspectivas geográficas sobre el espacio rural*, IX Coloquio de Geografía Rural, Ponentziak, *Txosten Teknikoak*, **82**, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.
- Ruiz Urrestarazu, E. (1999): “Adaptación y gestión de las medidas agroambientales y de forestación en el País Vasco”, in M. Corbera, (arg.): *Cambios en los espacios rurales cantábricos tras la integración de España en la UE*, Kantabriako Unibertsitatea, Santander.
- Sumpsi, J. M. (1994): “La política agraria y el futuro del mundo rural”, *Revista de Estudios Agro-Sociales*, **169**, 149-174.
- Troitiño, M. A. (1995): “Los espacios naturales protegidos en el desarrollo rural”, in J. García, (zuz.), *Medio ambiente y desarrollo rural*, Valladolideko Unibertsitatea, Valladolid.

